



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA

2024ko irailaren 19a

GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa.
- ✓ Oraingo proiektuak:
 - 2024ko kontrataziorako laguntzak.
 - Getxo: Helmuga Turistiko Adimenduna. Kode Etikoa eta Enpresa turistiko adimenduna.
 - Karbono-azterketaren kalkulua: programa pilotua.
 - “Getxoz gozatzeko planak 2025” kanpaina.
 - “Bizkaiko Flyscha” proiektua.
 - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua.
 - “Surfaren Herrien Sarea” proiektuaren aurrerapenak.
 - Itsas Hub eta Sormen Hub.
 - Beste gai batzuk: enpresentzako dirulaguntzak, lehiakortasun programak, enpresetarako aholkularitza-zerbitzuak.
- ✓ Ideia eta proposamen berriak



BERTARATUAK: % 50

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoa emanda	Arrazoirik eman gabe
Martin Bilbao	Saioa Martin			X
Wilextours	Pablo Perez			X
Go Basquing	Iñigo García-Valenzuela	X		
GeoBizi	Joseba Betanzos		X	
Ekobideak	Imanol López		X	
Ekobideak	Bárbara Casas		X	
Zona Norte Represent. Tcas.	Josu Abeytua	X		
El Transbordador de Vizcaya S.L.	Ainhoa Sarriegi		X	
Getxo Tours	Unai Celaá			X
MICE Design	Virginia Pérez			X
Cristina Laiseca repres.	Cristina Laiseca			X
Bilbao Food Safari	Oihana Oribe	X		
PUNTA BEGOÑA Galeriak Fundazioa	María Peraita		X	
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapenaren Arloa	Ane Osoro	X		
	Rubén Justicia	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Ane Osoro turismo- eta enpresa-teknikariak ongi-etorria eman die bilerara bertaratu direnei. Hori egin ostean, adierazi du mahaian argitu ezin diren zalantzak eta iradokizunak idatziz jasoko direla eta, ahal denean, behar bezala erantzunoko direla.

Ondoren, udako denboraldiaren egoera nolakoa izan den aztertu da eta sektorearen ikuspegiak jorratu dira. Oro har, urtearen hasiera oso gogorra izan dela aipatu da. Hala eta guztiz ere, uda hau ez da oso egokia izan turismo-enpresentzat, urtea amaitzeko falta den zatian hobetzeko itxaropena dute. Horregatik, balorazio orokorrean, pentsatzen dute «ez dela urte txarra izango» eta, azkenean, salmentak konpentsatu ahalko direla.

Getxoko Udalak udan zehar garatu dituen ekintza espezifikoaren laburpena egin du Rubén Justiciak. Jarduera horiek guztiak mahaian alde aurretik informazioa eskatu deneko gaietara lotuta daude: Arrigunagako eta Ereagako txosnen egungo egoera, Ereagako hondartzako aldagela inklusiboaren estreinaldia, Xake plazako horma-irudia aukeratzeko prozesu partehartzailea, Gurari Etxea (Getxoko Emakumeen Etxea), Usategi berriz irekitzeko aurrerapenak eta ostatu-mahaiaren proposamena: Getxoko hotelen seinaleak hobetzea.



Ruben Justiciak gogorarazi du, aurtengo martxoko mahaiak eskatuta, bilera bat egin behar dutela Palacio Arriluce hotelarekin. Josu Abeytua Interpretazio Zentroen, Gidarien eta Bidaia Agentzien mahaiko ordezkariak adierazi du bilera egiteko eguna finkatu dutela, irailaren amaieran, hain zuzen ere.

2. Informazioa hurrengo gaiet buruz:

a) 2024ko kontrataziorako laguntzak

Ane Osorok azaldu du urrian zabalduko dela besteren konturako langileak dituzten autonomoak kontratatzeko laguntzen deialdi berriaren epea, baldin eta langile horiek lanaldi partzialeko edo osoko lan-kontratu mugagabeak egiten badituzte, kontratuok 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean hasitakoak badira eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute.

[Informazio gehiago](#)

b) Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera egiten

Ane Osorok azaldu du adierazi du Getxori Helmuga Turistikoa Adimendunaren (HTA) ziurtagiria aitortu diotela. Helmuga Turistikoa Adimenduna (HTA) programak helmugan lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantza, berrikuntza, teknologiaren, jasagarritasunaren eta iragarritasunaren bitartez.

Ane Osorok esan du 2023ko abenduan BasqueTourren diagnostikoa jaso zutela eta mahaian lanean ari direla bost ardatz nagusi hauetan hobekuntzak aplikatzeko:

- Gobernantza
- Berrikuntza
- Teknologia
- Jasagarritasuna
- Iragarritasuna

Azaldu da, 2024ko abuztuaren 30ean, Getxok atera duen emaitza orokorra % 54,8koa dela, batez bestekoa baino handiagoa, kontuan hartuta helmugan batez bestekoa % 40,5koa dela.

[Informazio gehiago](#)

c) Kode etikoa: "Turismo Etikoa"

Ane Osorok esan du Turismo Etikoa gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko programa dela, Basquetourrek sustatua, NBERen GJHak eta Munduko Turismo Antolakundearen munduko turismoaren kode etikoa ezkontzeko. Jasagarritasunaren 8 printzipiotan oinarritzen da, eta betetzen direla ziurtatzeko memoria bat aurkeztu behar da.

Ane Osorok adierazi duenez, alde aurretik enpresak eta Turismo Bulegoa programa honi lotuta egotea besterik ez zuten eskatzen. Hala ere, aurtengo erabakiak udalek ere parte hartu behar direla programa horren ziurtagirian. Gainera, Ane Osorok azaldu du Turismo Enpresa



Adimendunerako 13 enpresa proposatu zirela –horiek ez daude Kode Etikoarekin lotuta–, eta erantzunaren zain daudela.

Bilbao Food Safariko Oiana Oribek ziurtagiria lortu nahi du. Ane Osorok eskabidea ondoko helbidera bidaltzeko esan dio: turismokalitatea@getxo.eus eta bertan baloratuko dute datorren urterako programan parte hartzeko hautagaitza.

Oro har, aipatu da kalean ez dutela programa hori oso erakargarritzat jotzen, helburua ez dutelako argi ikusten.

Informazio gehiago: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Programak - Turismoaren kode etikoa](#)

d) “Getxoz gozatzeko planak 2025” kanpaina

Ane Osoro turismo-enpresa eta -jardueretako teknikariak azaldu duenez, “Getxoz gozatzeko planak 2024” katalogoa liburu-formatuan eta goitibeherako formatuan badutela Ereagako Turismo Bulegoan, eta bertan mota guztietako liburuxkak eska ditzaketela. 2024ko katalogoa erakutsi du eta bertaratutakoen artean banatu du. Gainera, esan du Getxok FITUR azokan parte hartu ohi duela plan horiek eramanda eta Flyscharen proiektua ere bai.

Ane Osorok adierazi du urrian hasiko dela 2025eko katalogoaren edizio berriari atxikitzeko epea. Aurten, bermatutako jarduera bakoitzaren aurrekontuaren % 80raino finantzatuko da, gehienez ere, 7.000 euro. Laguntza horien helburua da Getxon turismo-eskaintza sortzea, berehala kontsumitzekoa, erreserba egiteko beharrik gabe eta gutxieneko talde bat egon beharrik gabe.

Josu Abeytuak esan du “Getxoz Gozatzeko Planak 2025” liburuxkan egonez gero, erreserbak aintzat hartu eta agenda blokeatzera behartuta zaudela, baina litekeena dela bezeroa ez agertzea edo erreserba bertan behera uztea; bestalde, esan du Getxoko Udalak hainbat urte daramatzala formatu horrekin lanean eta mota horretako ekintzen tenperatura bertatik bertara ezagutzen dela (hau da, arrakastarik duten ala ez). Hortaz, urteko emaitzen memoria aurkezteko eskatu die Turismo Arloko arduradunei.

Ane Osorok azaldu du irteera bermatuen helburua dela unean bertan eta aurretiko erreserbarik gabe kontsumitzeko aukera eskaintzea dela. 2025eko Planen urteko memoria bidaltzea erabaki da.

Azkenik, laguntza horiek eskatzera eta deialdiaren baldintzak eta betekizunak Getxoko Udalaren webgunean eraz aztertzeraz gogatu ditu mahaikideak.

Bestalde, goBasquing agentziako Iñigo Garcia-Valenzuelak galdetu du arrakastarik handiena duen jarduera zein den eta katalogo hori behar bezala zabaltzen ote den. Ane Osorok erantzun dio itsas irteerak direla jarduera arrakastatsuenak. Kanpainari dagokionez, kanpoko publizitatea kontratatu da Getxon eta inguruetan, eta sare sozialetan zabaldu da.

Informazio gehiago: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - Getxoz gozatzeko planak 2024](#)

e) “Bizkaiko Flyscha” proiektua



Ane Osorok esan du Turismo Arloa eta Uribe Kosta eskurik esku lan egiten ari direla “Bizkaiko Flyscha” proiektuaren hedapenean eta sustapenean. Aurten, jarduerak eguneratu dituzte web orrian eta mapan.

Ane Osorok adierazi du sustapena egin dela Bilboko eta Gasteizko tranbietan, eta aurreratu du urte amaieran argitaratuko dela maparen goitibeherako bertsio arinagoa eta eramangarriagoa.

Informazio gehiago hemen: [Bizkaiko Flyscha](#).

f) Karbono-aztarnaren kalkulua

Ane Osorok esan du Udalak proiektu pilotu bat abiarazi duela udalerrian ingurumenean duen eragina neurtzeko, eta programan horretan 5 turismo-ostatuk (hotelak, ostatuak eta apartamentu turistikoak) parte hartu nahi izan dutela.

Jarraian, Ane Osorok azaldu du programa horren lehenengo fasean, ostatu bakoitzean egiten den jarduerari eta energia-kontsumoari buruzko informazioa biltzen dela, eta datu horiek guztiak, geroago, IHOBEk (Ingurumen Jarduketarako Euskal Sozietate Publikoa) darabilen karbono-aztarnaren kalkulagailu batean irakurtzen dira. Azkenik, esan du emaitzak jasotzen dituen txostena egingo dela eta karbono-aztarna murrizteko ekintza-plana prestatuko dela.

Informazio gehiago: [Turismo-ostatueterako karbono-aztarna kalkulatzeko programa](#)

g) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

DEAPIE programaren eta 2024an antolatuko diren ibilbide berrien berri eman da: Elvira Larrazabal, Juana Bizcarra.

DEAPIE ibilbide guztiak ikusi [Getxo - ZER IKUSI - deapie](#)

h) Turismo-sektoreko berriazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak

Ane Osorok mahaikideei gogorarazi die Udalak turismo-sektoreko berriazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak eskaintzen dituela, eta parte hartzera gogatu ditu.

3. Ideia eta proposamen berriak.

Oro har, aipatu dute aurten Getxoren irudi turistikoak ez duela aldaketa esanguratsurik izan. GoBasquing agentziako Iñigo García-Valenzuelak esan du eurek Getxo eskaintzen dutela agentziaren zerbitzu turistikoaren barruan, Bilboko historiaren atala den beste elementua denez gero, turistak helmugan emandako egonaldiaren arabera.

GoBasquing agentziako Iñigo García-Valenzuelak eskatu du Udalak ezar dezala estrategia argia Arriluce Hotelari doakionez, “luxuzko” turismoa erakartzeko; izan ere, beraren iritziz, halako turismoa irits daiteke hemendik aurrera Getxora hotela irekitzearen ondorioz, Getxoko harrera-zerbitzuak ez baitaude gertu, gaur egun, ezaugarri horietako turistak hartzeko. Beste alde batetik, Rubén Justiciak, Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak, esan du urriaren 2an Ostatu Mahaia biltzeko deia egin dela eta, bertan, udako denboraldiaren azterketa laburra



egingo dela Palacio Arriluce hoteleko arduradunekin. Bilera horretan, Arrilucen gaua ematen duten bisitari-moten datu gehiago ezagutuko ditugu.

Bilbao Food Safariko Oiana Oribek “Euskadi Gastronomika” markaren kudeaketaren zabarkeria salatu du, eta adierazi du bera kontu korporatibo horren kudeaketa digitaletik kanpo geratu dela. Ane Osorok erantzun dio Eusko Jaurlearitzak, aurten, irudi korporatibo berria plazaratzea aurreikusita daukala. Hala eta guztiz ere, azaldu du aurten autonomia-erkidegoko hauteskundeak izan direla eta, beharbada, gertaera horrek barne-kudeaketa moteldu duela.

Bilbao Food Safariko Oiana Oribek galdetu du zein diren Turismo Bulegoan Getxora iristen diren turistaren informazio-eskaera ohikoenak. Ane Osorok adierazi du Turismo Bulegoan gehien eskatzen diren bi erakargarri turistikoak hauexek direla: Portu Zaharra eta Bizkaia Zubia edo Zubi Esekia. Bizkaiko Flyscharen ibilbideari buruzko informazioa ere ematen da, baina aurrekoek baino interes txikiagoa pizten du.

Josu Abeytua Gidariaren, Interpretazio Zentroen eta Bidaia Agentzien mahaiko ordezkariak Kirol Portuaren zabarkeria aipatu du, eta ohartarazi du emakidadun berriak Getxon hotel berri bat eraikitzeke asmoa duela. Era berean, kexa agertu du sektoreak horri buruzko informazio gehiagorik ez daukalako, gardentasunik ezaren eraginez.

Berlaratutakoek gurutzantzietan eta adierazleei buruzko informazioa eskatu dute.

4. Hurrengo urratsak:

- **Enpresen Kontsulta Foroa biltzea: Urriak 30.** Bertan, sektoreko ordezkariak mahaia sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA (2024/09/19)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Hauei buruzko informazioa ematea: 1. “Getxoz gozatzeko planak 2024” ekimenari buruzko emaitzen urteko memoria. 2. 2024ko amaieran, Getxora helduko diren gurutzantzien etorrerei eta 2025eko aurreikuspenei buruzko informazioa. 3. Urteko bigarren seihilekoan, Getxon emandako gau-kopuruari buruzko informazioa.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera